

## KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, kostuak kontutan izan beharko ditugu. Honako hauek izango dira:

### Kostu finkoak

- Gattiken enpresak publizitate bideoa egingo digu: **200€**
- Azken ukituak egiteko erabiliko dugun makina: **250€**
- Makina horiek lokalean muntatu behar izateko laguntza beharko dugu, baina taldekide baten ama honetan aditua denez, berari laguntza eskatuko diogu, eta horrela ez digu kosturik suposatuko. 0€
- Proiektu hau aseguratuta egin nahiko genuke, ahalik eta arazo gutxien izateko eta hauen aurrean aditu baten laguntza izateko. Taldeko baten osaba abokatua denez, berarengan joko dugu eta ondorioz, ez digu inolako gasturik suposatuko. 0€
- Aseguratuko gaituen enpresak (Allianz) **400€-ko** kostua izango du.
- Bankuari mailegu bat eskatuko diogu, kasu honetan, Rural Kutxari, bertako bezeroak garelako eta beraiengan konfiantza dugulako. 2000€-ko mailegua eskatuko dugu, eta, ondoren, %1'5-eko interesak ordaindu beharko ditugu. Beraz 2030€-ko gastua suposatuko digu interesa barne eta 5 urteko epean ordaindu beharko dugu. Ondorioz, urtero **406€-ko** gastua suposatuko digu honek.
- Langileak gu geu izango gara, eta proiektu honen hasieran gure soldata ez da oso altua izango, gastu handiak izango baititugu; hala ere, honek errentagarritasuna ekarriko badu, etorkizun batean gure soldatak handitzen joango dira. Arrakasta izanez gero, deskontuak egiteko aukera izango dugu. Hasierako soldata 500€-koa izango da ez baitakigu gure enpresak arrakasta izango duen edo ez. Bost langile garenez, 2500€ gastua izango da hilabetean eta urtero, **30.000€**.

Kostu aldakorrak, ekoiztutako materialaren araberakoak:

- Urtean 94.500 poltsa saltzea espero dugu (bakoitzak 1€) eta hauetako bakoitzak 0,05€ kostatuko ditu eta ondorioz **2.362€** kostatuko digu poltsak hauek egitea.
- Poltsa hauek gure lokalean egingo ditugu, eta bi aukera egongo dira; lokalera poltsak jasotzera etortzeko aukera egongo da, batetik, eta, bestetik, kostu batekin guk beraiak nahi duten etxe edota enpresa batera garraiatzea. Beraiak etorri gero, guretzako ez du kosturik suposatuko; aldiz, garraiatzea nahi badute, gasolina gastatuko dugu eta beraiak prezioa apur bat igoko zaie. Gasolinaren kostua 1'164€-koa da gure herriko gasolindegian, eta gure autoa diesel denez, prezio hura izango luke litro bakoitzak. Irteera bakoitzean 100km inguru egingo ditugula estimatzen dugu, Euskal Herrian zehar zabalduko den negozioa izango baita; hala ere, badaezpada erregaiez beterik izango dugu beti autoa. Hortaz, gutxi gorabehera, urtean 25000km eginez eta kilometro bakoitzaren kostua 0'1164€-koa izanik, urteko gasolinaren kostua **2910€-koa** izango da (250 lan egun kontutan hartuta).

Beraz, hauek izango dira kostuak: publizitateak kostua dakar eta makina bat erosi egin beharko dugu. Gainera, abokatu bat kontratatuko dugu eta enpresa aseguratuta egingo dugu. Bankuari mailegu bat eskatuko diogu, poltsak erosi beharko ditugu eta gasolinak ere kostu bat izango du.

Aldiz, abantaila batzuk izango ditugu, kosturik ez baitute ekarriko: makinak muntatzeko taldeko batek amak lagunduko digu, aditua delako; ez dugu langilerik kontratatu beharko, horiek gu izango baikara (nahiz eta soldata bat izango dugun).

Ondorioz gure kalkuluen arabera, urtean Ugassak 600€ emango dizkigu enpresa berri bat izateagatik eta gobernuak ere 300€ emango dizkigu. Urteko irabaziaz 94.500€koak izango dira. Aipatutako diru languntzak batuz gero, 94.900€ko diru sarrerak izango ditugu. Kostuei dagokionez, urteroko gastuak 36.528€-koak izango dira. Ondorioz, gure enpresaren urteroko irabazi garbiak 58.372€-koak izango dira.